

Estalkirik gabeko zalaparta eragilea

Gaur ehun urte jaio zen Simone de Beauvoir feminista, idazle eta filosofo existentsialista

ARANTZAZU MUÑOA

«Emakumea ez da emakume jaio-tzen, bilakatu egiten da», idatzi zuen Simone de Beauvoirrek *Le Deuxième Sexe*-n (Bigarren sexua) 1949an, Frantziako emakumeek bozkatzeko eskubidea lortu eta lau urtera. Feminismoaren Biblia bilakatu zen askorentzat Beauvoirren lana, eta filosofian XX. mendean idatzi den obrarik garrantzitsuentzat jo izan da. Garaian bertan ere sekulako arrakasta lortu zuen: aste batean 22.000 ale saltzera iritsi zen.

Gordin eta estalkirik gabe azaldu zuen Beauvoirrek emakumearen sexualitatea eta askoren ustez horrexegatik eragin zuen halako zalaparta. Ez zuen eufemismorik erabili gaiaz aritzeko. Baginaz, klistorisaz, hilekoaz eta emakumearen plazeraz hitz egin zuen; gerra-ondoko Frantziaren artean tabu ziren kontzeptuez.

Emakumearen nortasuna eta ezberdintasun sexuala psikologiaren, historiaren, antropologiaren, biologiaren, erreproduktzioaren eta harreman afektibo-sexualen ikuspegitik landu zituen. Emakumea «beste» izan zela ondorioztatu zuen, hau da, objektua, gizona subjektua zen bitartean.

Pripublikarrak taldearen ustez, Beauvoirren ideia horiek gaur egun ere balio dute, emakumea betiko estereotipoetatik askatzen saiatu baitzen Beauvoir: «Emakume asko zeudela esan zigun, nahiz eta hezkuntzak eta gizarteak emakume mota bat eraiki», dio Maria Murrek taldearen izenean. Haren esanetan, Beauvoirren teoriak, bizirik jarraitzen du, besteak beste, gaur egun ere badaudelako emakume asko daudela ahazten duten feminismoak: «Ezin da epairik eman emakumeek dituzten beharren gainean».

«Sexuen artean harreman sexual eta afektibo berriak sortuko dira, orain inajinatu ere egin ezin ditugunak», zioen Beauvoirrek. Halako mintzokien aldekoak eta aurkakoak sortu zitzaizkion inguruan. Lagunek *Castor* ezizena jarri zioten, haren izpiritu eraiki-

tzailea islatzeko. Etsaiek, berriz, Sartreren emakumea zela salatze-ko, «grand sartrreuse» edo «Notre Dame de Sartre» deitzen zioten.

Emakumeentzat aske izatea baino esklabo izatea erosoagoa zela adierazi zuen Beauvoirrek eta beste ezereen aurretik autonomia ekonomikoa behar zutela emakumeek. Geroago, 343ren manifestua sinatu zuen, 1971n *Le Monde*-k argitaratu zuena. 343 emakumek inoiz abortatu zutela adierazi zuen bertan eta Beauvoirrek esan zuten, feminista zen aldetik, bere lehen urratsa manifestu hura sinatzea izan zela.

ORDUAN NAHIZ ORAIN, POLEMIKA.

Beauvoirrek aurkakoak ez zituen katoliko eskuindarren artean bakarrik izan, baita komunisten artean ere. Batzuek kontrazepzioa eta abortua neurosiaren, bizioaren, lizunkeriaren eta homosexualitatearen ondorio zirela zioten. Besteek, berriz, emakumea klaseen arteko borrokaren bitartez askatuko zela eta Beauvoirrek akats bat egin zuela: zapaltzailea gizona zela sinetsi.

Le Deuxième Sexe idatzi zuenetik ia 60 urte igaro badira ere, zeresana ematen jarraitzen dute lanak eta egileak. Askok salatu dute Beauvoirrek eraiki nahi izan zuen irudia eta benetan zena, ez zetoze-la bat; lanean aldarrikatu zuena eta gero bere zenbait idatzik era-

kutsi dutena kontraesana direla. 90eko hamarraldian Beauvoirrek idatzitako maitasun eskutitzak ezagutu zirenean sortu zen polemika. Emakume hotza, urruna, zentzumenik eta sexualiterik gabea zela erakutsi zuen zenbaiten ustez *Le Deuxième Sexe*-n. Eta bere bisexualitatea ere kritikatu zuten. 1948. eta 1964. urte bitartean idatzitako 304 eskutitzek haren irudia aldatu zuten: «Zure mendeko emaztea nauzu», dio batean, eta honela idatzi zion Nelson Algren maitale estatubatuarri beste batean: «Ongi portatuko naiz, platerak garbituko ditut, eskobatu egingo dut, neroni joango naiz arrautzak erostera eta *rhum* opil bat egingo dut eta ez dut zure ilerik, ez zure bizkarrik ukituko zure baimenik gabe».

Feminismoaren ikur eta zalaparta eragile izateaz gain, idazle eta filosofo existentsialista ere izan zen Beauvoir. Gaur dira 100 urte jaio zela, eta hura gogoratze-ko jardunaldiak ari dira egiten Paris Diderot umibertsitatean.

Frantziako familia burges batean jaio zen Simone de Beauvoir eta kristautasunean hezi. Gazterik galdu zuen Jainkoarenganako sinesmena. Gaztetxo zelarik familiaren gainbehera bizi izan zuen, aitzak lana galdu eta alkoholismoan erori zenean. Amak, hala ere, gogor egin zuen lan eta bi alabak aurrera ateratzea lortu zuen.

Sorbonan filosofia ikasten ari zela ezagutu zuen Jean Paul Sartre, filosofia ikaslea hau ere. 1929an hasi zuten maitasun harreman aske eta modernoa, eta zenbaitetan baita eskandaluzkoa ere orduko gizartearentzako. Ikasketak amaitu ostean, Frantziako zenbait hiritan eskola ematen hasi zen, baina II. Mundu Gerrak erabat aldatu zion bizimodua, eta 1943an, Paris alemaniarrek hartuta zeukatela, irakaskuntza utzi behar izan zuen. Erresistentzia frantseseko kide egin zen eta lehen nobela idatzi zuen: *L'Invitée* (1943), askatasunari eta betebeharrak indibidualari buruzkoa. Gai beraren gainean idatzi zuen hurrengo lana ere, *Le Sang des autres*-en (1944), *Besteen odola* izenburupean euskarara emana dagoen Beauvoirren lan bakarra, Oier Alonsok itzulia eta Ibaizabalek argitaratua.

Gerraren ondoren, Sartrek zuzendutako *Les Temps Modernes*

Jean Paul Sartre eta Simone de Beauvoir: bikote aske, modernoa.



Emakumeentzat aske izatea baino esklabo izatea erosoagoa zela adierazi zuen

Aurkakoak ez zituen katoliko eskuindarren artean bakarrik izan, baita komunisten artean ere



Simone de Beauvoir biluzik, Nelson Algren maitalearen lagun baten etxean, Chicagon (AEB), 50

aldizkarian hasi zen lanean. Urte horietan Europan zehar bidaia asko egin zituen eta Kuban, Txinan, Errusian nahiz Vietnamen ere izan zen, Sartrekin batera komunismoa babesten. Beauvoirren literatura Sartrek eta biek defendatutako existentsialismoak zipriztindu zuen, hala ere.

Le Deuxième Sexe idatzi baino bi urte lehenago Sartrekin zuen maitasun harremana hautsi egin

zen, hura Dolores Vanetti aktorearekin maite harremanetan hasi baitzen. Dena den, urte hartan bertan AEBetara joan beharra izan zuen hitzaldi bat ematera eta Nelson Algren idazlea ezagutu zuen eta harekin ibili zen 1964 arte, nahiz jakin Algrenekin zuen harremana ez zela Sartrekin zuenaren berbera izango inoiz eskutitz batean adierazi zion moduan: «Zurekin bizitzen ezin